

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Awañak.
Petti.
Bonberenea ekintzak.
Iraupena: 67'07".
13,50 euro.

Basapiztiaren zuzeneko testigantza

BERAKO MUSIKARI HANDIAK di-dabaten grabatu zuen bere aita zenaren omenezko disko hau. Rafa Aceves piano jotzailearekin batu eta kontzertu borobila egin zuen Tolosako Bonberenea gaztetxean. Klasiko bihurtu diren bere hainbat kantu (*Hitz jarioa, Argia heldu da, Aurrera, Bera...*) berrinterpretatu zituen gitarra eta ahotsarekin; Ruper Ordorika, Xabier Lete eta beste batzuen belaunaldi arteko pieza irau-

korrak berreskuratu, eta Acevesekin batera goxatutako bestelako kantu kabaretero xuxurlariagoak ere eskaini zituen. Badakizue, Pettirekin, folketik bluesera, eta xuxurlartzetik garrasira instante batean pasa gaitzke. Une hunkigarri asko ditu diskoak, halakoak dira-eta beratar honen kontzertuak; eta gordinean, izan zen moduan, grabatuta dago. Euskal Herrian dugun musikari osoenetako bat.

Petti

«Agertokian ez dut pentsatzen zer egin behar dudan; kantuaren arabera ateratzen zait»

Nola izan zen zuzeneko diskoa egitea?

Bat-bateko kontua izan zen. Aita hil eta hilabetera diskoa kalean nuen, bere omenez egin nuen. Ez nuen gehiegi lantzeko astirik izan: Rafa Acevesekin pixkat prestatu eta aurrera.

“Hitzak bertzerik ez dira” zuk abestutakoak, baina jende asko horiekin identifikatu egiten da. Horren konziente zara?

Lehen ez, orain apur bat bai. Neuri gertatutako gauzen gainean idazten dut; eta beste batzuk Beñardo Goietxe lagunak idatzitakoak dira. Txikitatik ezagutzen dugu elkar eta niretzat idazten du, nik abesteko. Bigarren diskoa oso iluna da, eta batek baino gehiagok esan zidan berak ere gorriak pasa zituela. **Kantuak errazago idazten dira gaizki pasatzerakoan?**

Ez dauka zergatik. Egunotan, adibidez, Kanariar irletan nago senideak bisitatzen, eta hondartzan gitarra jotzen eta gauzak idazten nabil. Itsoak eta leku aldaketak, biek, ere eragin didatela uste dut.

Behin bideoklip batean beltzez margotu zinen, baina benetan beltzek

adina sentimendu jartzen duzu abestera...

Ez dut uste beltz onenen parera abesten dudanik. Txantxetan margotu nuen nire burua beltzez. Etxalarko borda baten geunden; blues bat grabatu behar nuen eta Jim Jarmuschen antzeko estetika lortu nahi genuen. Agertokian ez dut pentsatzen zer egin behar dudan; hala irteten zait, kantuaren arabera, eta askotan begiak itxita abesten dut gainera. Horrez gain, etxean edo lagunuen aurrean

abestu behar dudanean, askotan, lotsatu egiten naiz.

“Bizitza bakarra, eta zenbat galdu naiz behelainotan”. Musika egiten gehiago ahalegindu beharko zinateke?

Kantua Ruper Ordorikarena da eta hitzak Sarrionandiarenak, baina bat egiten dut esaten duenarekin. Kantuak egitea ezinbestekoa da niretzat. Gitarra aldean ez badaukat, nahiko galduta sentitzen naiz. Hala ere, beste gauza batzuei garrantzia ematen ikasi behar dut. ■

